# UMIEN LAGUNA

A.T.V.
896

# UMIEN LAGUNA



Zerutik natorkizue,
zeuok zeruratzeko

M-4408 A.T.V.
R-889 896

JAUNGOKO ZALE'REN IDAZTIAK

INSTITUCION SANCHO EL SABIO
OBRA SOCIAL
Caja de Ahorros de Vitoria

# UMIEN LAGUNA

("ARGI DONE LABURA" BIZKAYERATUTA)

(2'gn. argitalbena)

ZORNOTZA
Jaungoiko Zale'ren Irarkolan
1934

NIHIL OBSTAT

*Dr. Petrus de Anasagasti*
Censor

IMPRIMATUR

*Victoriæ die 14 februarii 1931.*

† Matthæus Episcopus.
Victoriensis

# Bizkai'ko umiei

Liburutxo au gipuzkoeraz agertu zan lenengoz Donostiako "Argia"ren arduraz ta ordañez, "Argi Done labuŕa" izenaz.

"Jaungoiko-Zale"ren artezkariak, Bizkai'ko umien artean be onakoxe liburutxo baten beaŕa dagoala bat eta bestei entzunda, bizkaieraztuteko ardurea emon eustan.

Lan au egiteko Eguzkitza jaunak bizkaieraztu ta gertauta daukan "Argi donea" be auŕean euki dot; otoi batzuk bardiñak daroez-eta, antxe joango diran lez emen be sartu dodaz.

Zuok, Bizkai'ko euskerea dara-

biltzuen umeok, onakaxe liburutxo baten beařez ba-zengozen, ona ba emen zeuontzako eraz eginda Gipuzkoako umeak esku artean darabiĺen liburutxo berbera, obeto aitu edo ulertzeko bear dozuezan itzak bakařik aldatuta.

Ume begikuok, lan au zeuori eskintzen dautzuet, zeuon arimak Jaungoikoagana zuzentzen obeto laguntzeko asmo utsez. Egunero, astero, iĺero.. beti egin bear dozuezan arimearen eginbeařak ondo egiten beronek lagunduko dautzue-ta, abegi onez artu eta egunero zeuen lagun izaten badozue, nire lana ordaindutzat emongo dot.

**Bizkaieratzaĺea.**

*Abadiño 1930-ko Lotaziĺa.*



# UME ONAREN BIZIBIDEA

## Egunero

1. Oetik jagi ta berealaxe «Gurutze Santuaren» ur bedeinkatuaz eginda gero, goizeko eskantza ta otoitzak egizuz.

2. Al bada egunero Meza entzun, eta obeto entzuteko «otoitz-liburua» meza bitartean irakuŕi.

3. Ikastolako jakin - beaŕak ikasten alegindu zaite.

4. Jatorduetan agora ezertxo be ez

eroan, auŕetik otoitz egin barik, eta jan ostean Jaunari eskeŕak emon.

5. Jolastu bear dozunean jolastu zaite, baña mutilak mutilakin eta neskak neskakin.

6. Lagun gaiztoetatik alde-egin.

7. Jaungoikoari pekatuaz naibagerik emon barik igaro egizu eguna.

8. Gabean zeure etxekoekin batera, Eŕosarioa esan. Oitura on au zuenian galdu bada, zeuk baŕiro sartuizu.

9. Ez iñoz ogeratu utsegite ta pekatuen parkapena Jaungoikoari «Jesukristo neure Jaun» esanaz, eskatu barik.

## Astero

1. Domeka ta jai egunetan Meza osoa entzutera beartuta zagoz. Ez edozela entzun, basteŕetara begira ta alboko lagunakin izketan.

2. Domeka ta jai egunetan Meza Nagosi ta Besperetara zoaz, eta eleiz -abestiak ikasi ta abestu.

3. Larunbatean autortzea eta jai

egunetan Jaunartzea gustiz ona litzakizu.

4. Eŕiko eleizan domeketako dotriña-erakusketa badago, alperkeriz itxi barik, zintzo joan zaite.

## Il̄ero

1. Astero ezpada be, il̄ero beintzat zeure pekatuak autortu egizuz, eta Jaunartu be bai, auŕetik ondo gertuta.

2. Il̄aren lenengo barikuetan, toki askotan oi dan lez, eŕiko ume guztiak Jaunartze ospatsu edo *komuniño jenerala* egiteko oiturarik bada, zeu be aretaiko bat izan zaite.



# OTOITZA

Gure indaŕez bakaŕik, Jaungoikoaren laguntza barik, zerurako gai dan gauzarik ezertxo be ezin geinke egin. Pekatu astunean il ezkero ezin zeruratu leiteke iñor; nai-ta-nai ez, inpernura amilduko da. Pekatuan ez jausteko, Jaungoikoaren laguntza bear da. Jaungoikoaren laguntza eskatzen dauan edonok artuko dau. Jaungoikoari zor yakon gurtzea emoteko otoitza beaŕezkoa yaku. Beaŕezkoa yaku bide zuzenean beti irauteko be.

Otoitz egin bear dautsogu ganera etxeko gora-beretan zeruko Ama eŕukioŕari, eriotz-aldian laguntzaīe ona dan Jose santuari, norbere izeneko santu ta Aingeru jagoleari be bai.

## Goizeko otoitzak

Gurutze Santuaren † señaleagaitik geure † areriokandik zaindu gaizuz † geure Jaun eta Jaungoikoa.

Aitaren eta Semearen † eta Espiritu santuaren izenean. Olantxe.

(100 eguneko parkapenak ur bedeinkatuaz egin ezkero).

*Gero esaizu*

NEURE Jaungoiko maitea: kristiñau onari dagokion lez | gura dot gaur bizi; baña zeu barik | ezer ezin negiken ezkero, lagun egidazu, Jauna.

**Siñespen, Itxaropen eta maitasun egintzak**

«Zugan siñesten dot, Jauna, Egi utsa zarealako».

«Zugan daukat neure itxaropena, siñesgaŕi ta agindurikoa betetan | zintzoa zarealako».

«Maite zaitut, Jauna, on-ona zarealako».

(7 urte ta 7 beŕogeiko parkamenak bakoitzean).

**Egunoroko eskintza**

JESUSEN Biotz Jaungoikozkoa, Maria'ren biotz garbi-garbiaren bitartez | eskinten dautzudaz | gaurko nire otoitz, lan eta neke-miñak, egiten yatzuzan txarkerien ordez | eta Zeu beti eskiñiaz, altaran daukazuzan asmoetarako.

## «Aita gurea»

Aita gurea, zeruetan zagozana, santifikadu bedi zure izena, betorkigu zure eŕeñua, egin bedi zure borondatea zeruan lez luŕean be. Emoiguzu gaur geure egunoroko ogia, parkatu eiguzuz geure zoŕak, geuk gure zordunai parkatzen dautseguzan lez, eta ez eiguzu itxi tentaziñoan jausten, baña gatxetik jagon gaizuz. Amen.

## «Agur Maria»

Agur Maria graziaz betea, Jauna da zugaz, bedeinkatua zara zu andra guztien artean, eta bedeinkatua da zure sabeleko frutua Jesus. Santa Maria Jaungoikoaren Ama, eŕegutu egizu gu

pekatarioen alde | orain eta geure eriotzako orduan. Amen.

### «Aintza»

AINTZA Aitari ta Semiari | ta Espiritu Santuari. Len lez orain, beti ta amaibako egunetan. Amen.

*Lateraz:*

Gloria Patri et Filio | et Espiritui Sancto. Sicut erat in principio | et nunc et semper, et in sæcula sæculorum. Amen.

### «Siñisten dot»

SIÑISTEN dot Jaungoiko Aita alguztiduna, zeru-lur̃en egil̃ea | eta bere Seme bakar | Jesukristo gure Jauna, Espiritu Santuaren

egitez sortu | ta Maria Birjiñagandik jayo zana, Pontzio Pilatoren menpean nekaldua, gurutzean josia, il̄a ta obiratua izan zana, inpernuetara jatsi | ta irugaŕen egunean | il̄en artetik biztu zana, zeruetara igon | eta Jaungoiko Aita alguztidunaren eskumaldean| jezaŕita dagoana: andik | biziak eta il̄ak epaitzera etoŕiko dana. Sinisten dot | Espiritu Santua, Eleiza Santu katolikua: Santuen alkartasuna, pekatuen parkamena, aragiaren biztuerea, betiko bizitzea. Amen.

### «Agur Eŕegiña»

AGUR Eŕegiña, Ama eŕukioŕa, geure bizitza, gozotasun eta itxaropena, agur. Zuri deyez gagoz Ebaren ume erbestetuok: an-

tsiz eta negaŕez gatorkizuz | negar-eŕi onetan. Ea bada, geure bitarteko Andrea, zeure begi eŕukitsu oŕeik | gugana biurtu egizuz, eta erbeste onen ondoren | erakuskuzu Jesus, zeure sabeleko Seme onetsi ori. O biotz bigun! O eŕukior! O Marija Birjiña gozoa! Gure aldez otoi egizu, Jaungoikoaren Ama Done oŕek, Jesukristoren agintzariak | jadetsi daikeguzan. Amen.

### Andra Maria'ri

ANDRA Maria, neure Ama: oso-osorik eskinten nayatzu | ta neure maitasuna obeto agertzeko, neure begi, belaŕi, min eta dodan gustia | eskinten dautzut. Zurea naz ba, Ama Eŕukitsua;

zeure gauza ta ogasuna lez, aŕen, zaindu ta gorde nagizu.

(100 eguneko parkapenak *Agur Maria* esan eżkero, goiz eta aŕatsetan).

Gero iru *Agur Maria* esaizuz eta ondoren:

Zure Sortze garbiagaitik, Andra Maria, neure gorputz-arima garbitu.

(300 eguneko parkamenak)

## Jose Doatsuari

JOSE doatsua, neure zaindari eztitsu maitea: lagun egidazu.

## Norbere izeneko santuari

NEURE izeneko Santua: Jaungoikoari niretzat eskatu, kristiñau-eginbear gustiak | ondo bete dagidazan.

## Aingeru jagoleari

JAUNAREN aingerua | Berak nire eŕukiz | Graziz, mesede andiz | ni zaintzeko autua | Goi-goyetako argiz | bide gaizto gustietatik | ondo zaindu nagizu | egun baten ez nadin | inpernuan aurkitu.

## Aingeru-otoitza

℣. Angelus Domini nuntiavit Mariæ.

℟. Et concepit de Spiritu Sancto.

*Agur Maria...*

℣. Ecce ancilla Domini.

℟. Fiat mihi secundum verbum tuum.

*Agur Maria.*

℣. Jaunaren Aingeruak | Mariari iragaŕi eutsan.

℟. Eta Espiritu Santuaren egitez | sortu eban.

*Agur Maria...*

℣. Ona emen Jaunaren mirabea

℟. Zeuk diñozun lez | egin bekit.

*Agur Maria...*

℣. Et verbum caro factum est.

℟. Et habitavit in nobis.

*Agur Maria...*

℣. Ora pro nobis sancta Dei Genitrix.

℟. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

OREMUS

Gratiam tuam quæsumus Domine, mentibus nostris infunde, ut qui Angelo nuntiante, Christi Filii tui incarnationen cognovimus per passionem ejus et crucem, ad Resur-

℣. Eta Jaungoiko-Semea gizatu zan.

℟. Eta gure artean bizi izan zan.

*Agur Maria...*

℣. Gure alde otoitz - egizu, Jaungoikoaren Ama done oŕek.

℟. Jesukristo-agintzariak | jadetsi daikeguzan.

OTOITZA

Ixuri egizu, aŕen, Jauna, gure biotzetan zure grazia, Jesukristo zure Semearen Gizakundea, aingeruaren esanaz ezagutu genduanok, bere Nekaldi ta Gurutzearen

rectionis gloriam perducamur. Per eumdem Christum Dominum nostrum. Amen.

bidez | biztuera aintzatsura eldu gaitezan: Geure Jaun Jesukristo berberaren bidez. Olantxe.

*Aingeru otoitz au egunero iru bidar esaten da; goiz, eguberdi ta ařatsean, joalearen otsa entzuten danean.*

*Buruz ez badakizu esaizu iru bidar:*

Zure Sortze garbiagaitik, Andra Maria, nire gorputz eta arimea garbitu. *Agur Maria.*

## Jan auřerako ta osterako otoitzak

*Auřerako.*

Aitearen...

BEDEINKATU gagizuz Jaun ořek, eta zeure eskutik artu dogu-

zan janari oneik be—bardin bedeinkatu egizuz.

*(Aita gurea... Agur Maria... Aintza...)*

Zeruko eŕege andiak—ango mayan artu gaizala. Olantxe.

*Jan osterako.*

Aitaren...

Eskerrak zuri, zure mesede gustiakaitik, gizaldien gizaldietan bizi zarean eta agintzen dozun Jaungoiko alguztidun oŕi.

*Aita gurea...*

Jaungoikoak bere bakea emon daigula.

Baita betiko bizitzea be.

## Egun bitarterako otoitz laburtxoak

ONETSIA (bedeinkatua) izan bedi Jaungoikoa.

(200 eguneko parkapenak.)

Jesus, Maria, Jose.

(7 urte ta 7 berogeiko parkapenak).

### Lana asteko

JAUNA, lan au eskintzen dautzut: onetsi (bedeinkatu) egizu.

### Ziltzaldian (tentaziñoan)

ANDRA Maria, neure Ama; zure estalpera nator, arerioa ni galdu guraz dabil-eta.

## Aŕatseko otoitzak

EMOIDAZU, Jesus maitea, gaurko nire utsegite gustiak ikusteko argia, biotzez goŕotau dagidazan.

### Gabeko azterkeŕa labuŕa

Goizeko ta eguneroko otoitzak egin al dituzu?

*Eleizan.* — Meza ondo entzun ete dot? Meza entzuterik izan ezpadot, Sagrarioan dagoan Jesus'i ikustalditxo bat beintzat egin dautsat?—Kristiñau ikasbidetan zintzo-zintzo egon ete naz?

*Etxean eta eskolan.*—Guraso eta irakaslien esanak egin ete ditut?—Eleiz-dotriña ta eskolako beste jakingayak ikasten alegindu ete naz—Putzakin egon ete naz?—Txarto erantzun ete dautset?

*Jolasean.*—Lagun gaiztoekin ibili ete naz?—Gauza txaŕik ikasi edo irakatsi

ete dot?—Jaungoikoak ikustea gura ez dauan gauzarik egin al dot?—Asaŕetu edo iñor jo al dot?—Gogorapen, izketa edo asmo txaŕik izan ete dot?—Beste zerbaitetan utsegin ete dot?

*(Oeratu baño len utsegite guztien parkapena Jaungoikoari belaunikaturik biotz-biotzez eskatu, esanaz:*

JESUKRISTO neure Jaun, Jaungoiko ta gizon egiazkoa, neure Egiĺe ta Salbagiĺea, zareana zarealako | ta gauza guztiak baño maiteago zaitudalako, damu dot Jauna, damu dot biotz-biotzez, zu iraindua. Asmo sendoa artzen dot | ez geyago pekaturik egiteko, Zu irainduteko bide guztietatik | alde egin, autortu | ta oben-nekea betetako. Amen.

(Gero iru *Agur Maria* goizean lez.)

*Oyan sartzen zareanean.*

GABA Aingeruen egopean igaro dagidala, Jauna; indaŕak egin eta Zu biyar obeto maitatu ta Zure aginduak zintzoago betetako.

JESUS, Maria, Jose: neure biotz eta arimea emoten dautzuedaz.



# AUTORTZA

Pekatu ariñak autortzea ez da beaŕezkoa, baña bai on andikoa.

Pekatu astuna egin dauanak ez dauko beste biderik: edo autortza edo betiko ondamena.

Abadeak parkatzen dauana, ori bakaŕik izango da parkatua zeruan.

Autortza ondo egiteko eginbear nagusienak dira: 1.—Egindako gaiztakeriak eta egin barik itxi diran aginduak gogora ekaŕi. 2.—Biotzeko damua sor-

tu. 3.—Asmo bafi sendo bat artu. 4.—Obenak (pekatuak) autortu. 5.—Obennekea (penitentzia) bete.

*Jaungoikoaren aufean belaunikaturik asiko zara:*

Gurutze Santuaren... Aita gurea... Agur Maria... Aintza...

ZATOZ, afen, Espiritu Santu ori, zeure sinistedun zintzoen biotzak—bete—ta zeure maitasunaren su gafa—euretan izegi ta biztu.

℣. Zeure espiritua bialdu egizu—ta zuzenduko dira.

℟. Ta lurbira osoa—bafiztauko dozu.

## OTOITZA

ZEURE Jafaitzaleen biotzak—Espiritu Santuaren argiz—ira-

katsi—ta argitzen dozuzan Jaun ořek, ařen—entzun gaizuz eta Espiritu berořen bidez zuzena maite daigun eta bere atsegiñez beti poztu gaizan, lagun zakiguz. Jesukristo gure Jaunaren izenean. Olantxe.

Neure Jaungoiko maite ořek, neure pekatuak zeatz ezagutzeko argi bizia—ta gustiak biotzez gořotau ta autortzeko indařa—emoidazuz.

Andra Maria, nire Ama eřukiořa, Jose doatsua, neure aingeru jagolea, autorkuntza on bat egiten lagun zakidaze zeuen laguntasun ori—bear-beařekoa dot eta.

*Aita gurea... Agur Maria... Aintza...*

*Orain zeure bařua aztertu zetan uts egin dozun ikusteko.*

**Lenengo agindua:** *Jaungoikoa maiteen izatea.*

Aufeko autorkuntzan bildufez edo lotsaz pekatu astunen bat autortu barik itxi al dozu? Pekatu astunean bein be Jaunartu dozu?

Eguneroko otoitzak egin al dituzu? —Jaungoikoarenganako asaferik izan dozu? –Zuretzat parkamenik ez dagoala etsi dozu?

*(Ez ofelakorik ume: Kain ofexegaitik galdu zan, Judas be bai.*

*Biotzez damutzen bazara, Jesus onak pekatu gustiak parkatuko dautzuz).*

**Bigafen agindua:** *Jaungoikoaren izena alpefik agotan ez artzea.*

Berba zantafik esaten dozu? Jaungoikoaren, Jesukristoren, edo Santuen izena naizelan eta begirapen edo lotsa barik miñean erabili al dozu?

*(Jaungoikoaren izena begirapenez esatea ona da: naizelan miñean erabiltea, orixe da txaŕa).*

Esaten dozuna obeto siñistu azoteko atzamaŕak gurutz-irudian jaŕita mun egin al dautsozu? — Guzuŕaz be bai? —«Emen eta Jaungoikoaren auŕerako» edo «Jaungoikoa dan lez» edo oŕelako beste zerbait esan al dozu?

*(Guzuŕaz gauza oŕeik esatea alde bitara da pekatu: guzuŕa esan dalako ta Jaungoikoaren izena agotan artzen dalako. Egiaz be ez da naizelan esan bear, Oitu zaite* **bai** *edo* **ez** *beti egia esatera, ta itxi alde batera beste esaera ta siñuok).*

## Irugaŕen agindua: *Jai egunak Jaunari opaldu.*

Domeka ta jai egunetan Meza osoa entzun dozu?—Berandu eldu ete zara? —Eleizan berbetan, baŕiketan, basteŕetara begira egon zara?

*(Al badozu Meza nagosi ta Bespere-*

*tara be zoaz; eta Aita Santuaren gogoa betetako eleiz-abestiak ikasi ta abestu).*

**Laugaŕen agindua:** *Gurasoai dedu ta lotsa izatea.*

Gurasoai lotsabagakeririk egin dautsezu? — Euren esanak gogo txaŕaz egin edo egin barik itxi dozuz?—Zorua edo oŕelako berba txaŕik esan dautsezu?—Anai-aŕebakin asaŕatu, joka ibili, ta buru gogoŕa izan zara?—Eurengana ko ezin-ikusi edo bekaizkeririk badaukazu?—Kristiñau-ikasbidea ikasten zintzo izaten zara?—Eskolako gauzetan irakasliaren esanetara jarten zara?—Jakinbeaŕak ikasten alegindu zara?—Ate ondora datoŕen eskekoari, atso-agurai burlaka, siñu edo espan okerka egin dautsezu?

**Boskaŕen agindua:** *Iñor ez iltea.*

*Gorputzean.* — Norbait jo, buŕukau

edo atzamarkau dozu? — Aři-jaurtika ardun zara?—Eriotz, gatx edo kalterik, jausi ta min-artzerik opa izan dautsazu? — Ezin - ikusi, bekaitz (inbidi), gořoto ta asařerik izan dautsazu?

*Arimeari.*—Iñori pekaturako biderik emon dautsazu?—Gauza txařik erakutsi dautsazu?—Eta, ori baño txařago dana, irakaste txařok gaztetxoari emon ete dautsazuz?—Pekatu egiten lagundu al dautsazu?—Norbaitegaitik txarto esanka jardun eta bere utsegiteak besteri kontetan egon zara?

## Seigařen agindua: *Aragikeririk ez egitea.*

Gogorapen edo pentzamentu loirik etoři bayatzu, beriala kendu al dozu? —Autu edo berbeta loyetan egon al zara?—Begirakun zantařik izan dozu? —Bakařik ala bestegaz?—Zelako lagunakin jolastuten zara?—Dantza lotu ta zinietan izaten zara?—Ogerakoan

edo ogetik jagikeran lotsa barik jantzi edo erantzi zara?

*(Jaungoikoak toki gustietan ikusten zaituala beti gogoan euki).*

**Zazpigaŕen agindua.** *Ez ostutea.*

Zerbait ostu ete dozu? – Ostuteko asmorik izan al dozu?—Asmo txaŕez iñori kalterik egin dautsozu?—Zeurea ez dan gauzarik, jabeak jakin barik edo nai ez dauala, bai al daukazu? (Jabea nor dan jakin ezkero, aurkiturikoa jabeari emon bear yako. Jabea nor dan ez badakizu, nor izan leitekean jakiten alegindu).

**Zortzigaŕen agindua.** *Ez dan gauzarik iñori ez ezartea ta guzuŕik be ez esatea.*

Txantxetan be guzuŕik esan al dozu? —Ta iñoren kaltez?—Ixiĺekoak zabal-

tzen edo guzuŕezkoak asmetan jardun al zara? —Eŕezegi iñor gaiztotzat euki ete dozu?

## Bederatzigaŕen eta amargaŕen aginduak *seigaŕenean eta zazpigaŕenean sartzen dira.*

*Begira ume: pekatuak burura ekartea gauza bat da, baña burura ekarte utsaz ez dozu ezer auŕeratzen. Pekatuaz Jaungoikoa samindu dozulako, biotzean damua artu bear dozu ta pekatu gustiak goŕotau.*

*¡Oŕetan bai artu bear zeunkela ardura aundia! Egindako pekatu gustiak bururatu ezaŕen be, autortza ona izan leike; baña damutasun barik ez dira pekatuak parkatzen, eta Autortzako Sakramentua alpeŕekoa izango litzake. Damutasuna bear-beaŕekoa da ba, autortza ona izango bada.*

*Biotzeko damua artzen laguntzeko irakuŕi egizuz astiro - astiro uŕengo oaŕak.*

## Bildur Damua

PEKATU egin dot eta askotan egin be...? Noren kontra egin dot pekatu? Jaungoikoaren kontra egin dot, Jaungoikoa naibagetu dot...Beraz nire gaiztakeria andia da, Jaungoiko andia samindu dodalako; beraz | neure pekatuaren gaiztakeriari dagokion neuŕiko zigoŕa | irabazi dot.

*(Uŕengo letra txikiaz dagoana, astija dozunean edo noizean bein irakuŕi egizu).*

Pekatua, ariña zein txikia deitu aŕen, berez ez da txikia, andia baño, Jaungoiko andia samintzen dau-ta. Uriol batek Noe, ta bere sendia ezik, enparau gizon eta emakume gustiak ondatu zituan: andia izan zan kaltea, baña andiago da pekatu ariñarena, Jaungoiko andia samintzen daualako. Zerutik jatsiriko suak eŕe ta kiskaldu zituzan

Sodoma aldeko bost eŕi andi: andia izan zan kaltea, baña andiagoa da pekatu ariñarena. Ez da oŕelakorik jazoko, baña esate baterako: zeruko Aingeru ta Santuak inpernura jausiko balira, andia izango litzake kaltea, baña kalte andiagoa da pekatua. Inpernuko deabruak eta arima galduak zerura eroateagaitik be, ez litzake pekatu txiki bakar bat be egin bear, pekatua beti Jaungoiko andiaren kontra doalako. ¡Eta nik zelako eŕeztasunaz pekatu egiten dodan!... Pekatu ariñakaitik Garbitokiko oñazetan egon beaŕa dot, eta pekatu aztuna bada baŕiz, betiko inpernua irabazi dot. ¡Garbitokien iluna! ¡Inpernu ikaragaŕia! ¡Ai amaibako betikotasuna!

Pekatu astuna egin badot, edo egin izan badot edo egiteko zoritxaŕa izango baneu, ¡nire gain letorkezan zoritxar negargaŕiak...! Pekatu astunak itxiten ditu zeruko ateak, eta ez litzakez niretzat bein be idegiko damuzko autortza on baten bidez ezpada... Mun-

duko aita eta ama, gorputzeko osasuna eta luŕeko ondasun gustiak betiko galtzeak alako samintasun andiaz biotza erdibitzen badau; ¡zeruko Aita, Ama Birjiña, Aingeru ta Santu doatsuen laguntza betiko galdu-beaŕa izango litzaken naibagea!... Jaungoikoaren arpegi edeŕa ikusi barik beti egon beaŕa dan ezin-etsia!... Aita ona dan Jaungoikoa asaŕe dago, ta inpernuko deabrua nire adizkide... ¡Ene, zer egin dot! Jaungoikoak bere eskutik izten banau, ¿nora joango naz? ¡¡Betiko inpernura!!

¡¡Inpernura!! Eta inpernuan zer dago? Sua, betiko sua... Posporo baten su-gaŕetan atzamaŕa ipiñita ez nintzake luzaro egongo, oñazearen oñazez ler-egin barik... ¿Surtan gorituriko burdiñeari eskuaz elduko baneuskio? gogoratze utsak be gorputz gustia ikaraz *dardaraka* ipinten daust... Eta suzko laba galdatu baten sartu ta goritzen egon bear badot?... ¿Eta noiz arte? ¡¡Beti!! beti!! beti!!

Beti, bai, beti: Jaungoikoa izango dan arte: beti! Inpernuan dagoan arimeak miĩa urtetik miĩa urtera negar malko bat izuriko baleu; ¿zeubat urte, zenbat miĩaka urte bearko leukez edaŕa bat negar malkoz betetzeko? Noizko negar-malkoz itxaso bat bete...? Miĩa urterik miĩa urtera aingeru bat zerutik jatxi ta aldiko ondar-izpi bat bakaŕa eroango baleu: ¿noizko itxasoko ondartzak ustu?... Eta orduan inpernua amaitzen al da? Ez, ta ez; ezer igaro ez balitz letxe, baŕiro asten da... Eta pekatuak oŕelako zigorkada gogoŕa merezi al dau? Pekatu astuna bada, bai; pekatu ariña bada, edo mundu onetan edo Garbitokiko oñazetan ordaindu bear.

*(Inpernuaren oar onek pekatu astunean jausi diran arimentzat jaŕi dira. Zuk, Jaungoikoari eskeŕak, oŕelako zoritxaŕik izan ez badozu, be, ondo izango yatzu oar oŕek biotz baŕu-baŕuan sartzea, pekatu astunean jauzi etzaitezan; oŕez ganera pekatu ariñen damua*

*artzen be asko lagunduko dautzue. Bestela, bariz, len esan yatzun lez, damu barik autortza egitea alpereko lana izango litzake.*

¡Ai ene Jaungoikoa! nik bai txarto egin dodala! Zuzena zara zeure erabagietan | eta ez dozu iñor, merezi dauan baño geyago, zigortzen. Pekatuak orelako zigora eskatzen badau, nai-ta-ez pekatua gaiztakeri baltza izan bear, erez asko egiten bada be. Parkatu, Jauna, parkatu; aurerantzean ona izango naz-ta.

**Maitasun-Damua**

ETA ¿nor naibagetu dot? Neure Aita, neure Egile, neure Erosle, neure Jaun eta Jabea, neure Jaungoiko on-ona naibagetu

dot. ¿Nor da Jaungoikoa ta nor naz ni | Jaungoikoaren aginduak, ausi dodazan lez, austeko? Jaungoikoa dan lezkoa izanik, menpetasuna, zintzotasuna ta maitasuna zor neutsan: eta Jaungoiko onen auŕean egin dodazan gaiztakeriak | egiten azartu naz! Jesus jayo orduko | otzaz negaŕez dago, ni baŕiz | apain-zaletasun laŕegiz | zoro bat egiñik... Jesus | Ama Birjiñaren eta Jose Deunaren aginduak zintzo egiten, eta ni | gurasoen eta Jaungoikoaren aginduak egiteko naiezaz...Jesus | odolezko izerdia izurterano | nire alde otoitz egiten, eta ni | eguneroko otoitzetan zabar ta nagia... Jesus arantzazko koroia buruan daula, eta nik | zelako gogorapenak erabilten dodazan buruan!... Jesus nigaitik zi-

gortaua, Jesus nigaitik kurutzean il zan, eta ni bařiro pekatuekin Jesusi zauriak idigiten... Jesus altarako Ostian jaten emoten yat, eta zer emoten dautsat Jesusi ordez | eskerbakokeria besterik? Zer egin eikian Jesus'ek niretzat | egin dauan baño geyago, eta zer egin neike nik | gauza txařagorik pekatua baño?

O zorigaiztoko pekatua! Ai bein be pekaturik egin ezpaneu! Orain ezagutzen dot | ze gaizki erantzun dautsodan | Jaungoikoak daustan maitasunari. Baña naikoa da: Jaungoikoa neure Aita da. Badakit | damutzen danik ez dauala iñortxo be beragandik aldenduko, besarkatuko nau, bere Biotz bařuan, sartuko nau.

**Maitasun-damu-egintza**

Zuk aginduko zeru edeŕak |
ez naroa ni Zu maitatzera:
Beko su-gaŕen bilduŕak be | ez
oben-bidetik alde-egitera.
Gurutze baten, untzez josirik,
eriotz-laŕiz zakustan Jauna:
neke gogoŕez, lotsari goŕiz
Zu ikusteak nakar Zugana.
¡Zure eŕuki samuŕak nakar!
Sari barik be | Zure nintzake;
bildur neuskizu inpernu bage.
Zuri dautzudan maitasun orde |
Bardin zinduket laztan ta maite.

(Esaten danez, Xabier'tar Prastzisko deunak gazteleraz idatzia).

(Uŕengo otoitzak aztia dozunean esateko ipinten dira).

Neure Jesus maitea: umetxuekin eta pekatariekin | on-ona izan ziñan. Be-

gira: ni be umetxo bat naz, pekatari bat naz; nigaz be on-ona izan zaite. Parkatu, Jauna.

Daukadan gusti-gustia: arimea bere adimen eta borondateaz, gorputza bere sentzun guztiakin, danak zuk emonak dodaz. Au alan izan aŕen be, zuri esker onak emon beaŕean, zeure eskutik arturiko ondasun oŕekin | berberokin | zu naibagetu egin zaitut. Parkatu egidazu, Jauna.

Jesus Umea: kumatik maite ninduzun | eta nigaitik negar egin zenduan; nik baŕiz | etzaitut bear neban lez maite izan, bestela ez neban oŕenbeste pekatu egingo. Parkatu egidazu, Jesus.

Jesus: Zure buruan | arantzazko koroia ipiñi eutzuen; zigorkadak emonaz | zure gorputza odolduta, zaurituta, azuŕak agirian ebazala gelditu zan; azkenengo tantakarano | odol guztia ixuri zenduan. Parkatu egidazu.

Zure esku-oñak untze lodi gogoŕez zulatu ebezan; gurutzean nigaitik dindilizka il ziñan. Parkatu egidazu, Jauna.

## Amą Birjiñari

¡O Birjiña Maria, ume pekatarien gordelekua! nire pekatuen egiazko damua | jaritxi egidazu | eta neure asmo onak onetsi egizuz.

*Orain zoaz, ume, Abade Jaunaren oñetara eta gogoratzen yatzuzan egindako pekatu guztiak, bat be lotsaz edo bildurez itxi barik, esaiozuz. Ez ikaratu: ikusiko dozu ze bigun artuko zaituan, eta zure arimara etoriko dan atsegiña andia izango da.*

*Autortzen asi baño len, esaizu biotzez:*

Nik, pekatari onek, autortzen dautset alguztidun Jaungoikoari, Andra Maria beti-Birjiñari, Zoriondun Migel goi-aingeruari, Zoriondun Joan Bautisteari, Pedro ta Paulo Apostolu deunai, beste

Santu guztiai eta zuri, ene Aita oŕi, pekatu laŕegi egin dodala, gogapen, itz eta egitez, neuŕe eŕuz, neure eŕuz, neure eŕu andiz. Augaitik eskatzen dautset Andra Maria beti - Birjiñari, Zoriondun Migel goi-aingeruari, Zoriondun Joan Bautisteari, Pedro ta Paulo Apostolu deunai, beste Santu guztiai eta zuri, ene Aita oŕi, otoi -egin dayozuela nire alde Jaungoiko gure Jaunari.

Orain esan lenengo:

*Agur Maria, gustiz garbia.*

Abadeak erantzungo dautzu: *Orban barik sortua.*

Esan gero:

*Il̄abete (edo aste bete, ala noz dan) da oñengoz autortu nintzala, eta ez neban ezer itxi ez lotsaz ez aiztuta.*

*Azkespena (asoluziñoa) artu neban.*

*Aŕezkero: Lenengo aginduan...*

*Bigarenean...*

Eta onantxe lenengo agindutik asi ta esan zeuk egin dituzun utsegite ta pekatu guztiak. Ez, asko lez, autor-entzulearen itaunen zain egon.

Onelan egiñaz, erezago ta lenago amaituko dozu, eta zeuk esanda gero, autor-entzuleak beste itaunen bat egiten badautzu, apal erantzun, baña garbi.

Entzun gero berak emongo dautzuzan aolku edo konseju onak, ondo gogoan arturik, eta azkenez, azkespena (asoluziñoa) emoten doakizunean, esan biotz-biotzez:

Jesukristo neure Jauna, Jaungoiko ta gizon egiazkoa, neure Egiłe ta Salbagiłea, zareana zarealako | ta gauza guztiak baño maiteago | zaitudalako, damu dot Jauna, damu dot biotz - biotzez, zu iraindua. Asmo sendoa artzen dot | ez geyago pekaturik egite-

ko, Zu iraindutek o | bide guztietatik alde egin, autortu ta obennekea betetako. Amen.

## Autortu Ondoren

Zeure pekatu guztiak parkatuta dagoz, Jaungoikoa adizkidetu da, Ama Birjiñeak maitasunez begiratzen dautzu, zeruko aingeruak pozez dagoz, zeure Aingeru yagoleak be egopean estaltzen zaitu: inpernuko diabruak bańiz, ońoaka inpernuko zulora sartu dira. ¡Orain bai zorionekoa zareala!

## Jaungoikoari eskeŕak emoteko

O neure Jaungoiko maitea: parkatu daustazulako | eskeŕak emoten dautzudaz.

¡Bai ona zareala! ¡Zenbat maite zaitudan ene Jesus! Betiko maita-

tu gura zaitu, eta gaurtik auŕera | zintzo zintzoa izango naz; oraintxe autortu dodazan pekatuak | geiago egingo ez dodazala | agintzen dautzut, Jauna. Batez be | parkatu auxe | (esan zein pekatu) beste guztiak baño andiagoa dalako, geiago bein be ez egiteko | erabagi sendoa artzen dot. Olantxe gura dot.

Ene Jaungoikoa: zure laguntzaz | nire erabagi au beteko dot. Maria, neure Ama guztiz ona: zu be lagun zakidaz. Neure Aingeru jagolea: neure ustea zeugan ipinten dot; jagon nagizu.

Oben-neke edo penitentzitzat | abadeak emon daustan otoitza | zeuri eskintzen dautzut, Jauna. Parkatu daustazuzan pekatuak oso-osorik garbitu | ta aiztu dagi-

zuzan, zintzo-zintzo ta arduraz esango dot otoitz ori.

Orain bete egizu Abadeak emon dautzun oben-neke edo penitentzia.

Ume maitea: oraindik une batzuetan Sagrario auŕean gelditu zadi. Abadeak esan dautzuzan berbak gogora ekaŕi eta geldiro ausnartu egizuz. Arturiko asmoak betetako zelan eratuko zarean, erabagi ondo-ondo, eta eleizatik urten baño len, pekatari eŕukaŕien alde *Aita Gurea* ta *AgurMaria* esan.



# JAUNARTZEA

Gorputzak baizen beaŕezkoa dau arimeak be janaria, indartsu ta osasunez iraungo badau.

Janaria alde batera itxi ezkero, gorputzeko indaŕak gitxitu egiten dira, makaltasunak laster leuke bere ondoren gatxa ta, luzaro baño len, nai ta nai ez, gorputza ilgo litzake. Orixe berberori yazoten da arimeagaz be.

Oŕegaitik Jesus'ek onean esaten dausku: «Nire aragia ziñez janaria da,

ta nire odola ziñez edaria». «Zerutik jatxiriko ogia auxe da; berau jan dagiana ez da ilgo».

Berbera jaten emon gura yaku: «Nire aragia jaten eta nire odola edaten dauanak betiko bizia dauko ta azken egunean nik berbiztuko dot».

Baña Jesus'en dei maitetsuari entzungor egiten dautsonak gogoan euki beiz beste itz oneik: «Egi-egiaz diñotzuet: Gizonaren Semearen Aragia jan ezpa-dagizue, zuekan ez dozue bizirik izango».

Ez bada atxakirik ipiñi; sar̃i Jaunartu, ume. Pekatu astuna egitetik alde egizu ta beste barik Jaunartzeko gertu zagoz.

Or̃aitik Jaunartu aur̃etik pekatu ariñen erdoia kentzea be ondo da, zure bar̃ura yatortzun Jaun andiari zor yakon begirapenagaitik. Pekatu txikien erdoia kentzeko bidea maitasun-damuzko egintzea da, ta batez be autortza.

# JAUNARTU AUŔEKO OTOITZAK

Jaunartu baño len, zeugana datoŕen Jaun ori *nor dan* gogoratu egizu.

Zeure Jaun eta Jaungoikoa dozu, Zeru-luŕen jabea, zeure Egiľe, zeure Erosle, zeure Ongiľe ta Maitalea.

Eta biotz-biotzez esan:

## Siñispen-egintza

NEURE Jaun eta Jaungoiko | guztiz egizale zarean ori! Siñisten dot | orain artzera noan Osti oŕetan | zure Gorputz eta Odola, Gogo (arima) ta Jaungoikotasun berbera | emoten daustazuzala. Ori sendoro siñisten dot, zeuk oŕelantxe esan zebalako | ta ori egiztau eta aldezteaŕen | neure bizi au emongo neuke.

*Zetara datoŕen.*

Zuri bere mesede ugariak ekartera, zure zoriona emen luŕean egitera, gero zeruan be egiteko.

## Itxaropen-egintza

JAUNGOIKO zintzoa: zeuk esan zeban | Zugan itxaropena ipiñi dagianik | ez dala galduko. Zure eskintzari zintzoetan | uste osoa daukat | eta sendoro itxaroten dot, orain luŕean artzen bazaitut, gero zeruan | Zugaz bat egiteko zoriona be | emongo daustazula.

*Zergaitik datoŕen.*

Zuri dautzun maitasunagaitik dator, ez Berak zerbait irabaziko daualakoan; zure onak dakar zure biotzera, ez bere irabaziak.

## Maitasun-egintza

JESUS maitagari ori; nigaitik gurutzean zeure bizia emonez gañera, zeure aragi garbiz | ni indartzera zatorkidaz. Neure biotz, gogo ta indar guztiaz maite zaitut, eta zeugazko maitasun ořetan | bizi ta ilteko zoriona | eskatzen dautzut.

*Norgana datořen.*

Zeure biotzera dator, pekataria; ainbeste bidar oben astunaz orbandu | ta ezaindu dozun zeure gogo edo arimara. Bere arerio izan zara, eta ona emen non datorkizun, zure gaiztakeriak aizturik aizkitasun - laztan gozoa | zuri bařiro emotera.

## Damu-egintza

ENE Jaun andia: zure anditasunaren auŕean | neure ezereztasuna ezaguturik, lotsa, garbai ta damuz auzpaztzen naz | eta parkeske nagokizu. ¿Zelan asartu naiteke zu artzera, ainbeste bidar eta ain dongaro | naibagetu zaitudan eskargaiztoko au? Ez, ez naz ontasun andi oŕen jabe egiteko duin, ez gitxiago be; baña zeuk ori nai dozun ezkero, egin bedi zeuk nai dozun lez.

Meza-erazotzaleak, abadearen *Domine non sum dignus* entzunda, txiliña joten dauanean, esan zuk iru bidar:

Jauna, ez naz duin, zu nire etxean sartzeko; baña itz bakar bat esaizu, ta nire arimea sendatuko da.

Gero itz onek ezpanetan dituzula, zoaz begirune ta itzal andiaz Jaunartzera, mutikoa bazara besoak kurtzauta eta neskatoa bazara, eskuak batuta, eta ez beste asko lez eskuak zakelear. (poltzikuan) dabezala, baster gustietara begira.

## JAUNARTU OSTERAKO OTOITZAK

Jaun andi bati, zure etxean artzean egiten dautsazun afera edo abegi ona egingo al dautsazu beintzat jaun gustien Jaunari.

### Otoitz eta egintzak

*Jauna gurtzeko.*

Jesus, neure zoriona: Afiturik | eta pozez zoraturik nago, nigana etoñaz | egin daustazun mesede andiaz | eta biurtu daustasun ondasunaz, zeruko aingeru

ta santuekaz batera, zure aurean auzpazturik, zure maitasun eta erukia | aintzaldu, goratu | ta gurtu nai ditu.

*Eskerak emoteko.*

Jaungoiko ona: Nire ezereztasuna begiratu dozu. Gexo nengoan | eta zuk indartu nozu; txiro ta beartsu | aurkitzen nintzan | eta zeure ondasunez bete nozu. ¿Zer emongo dautzut, ene Jaungoikoa, zure eskuetatik artu dodazan | ondasunen ordez?

*Zeure burua eskintzeko.*

Neure Jaun eta jabea: nazan eta daukadan gusti-gustia damotzut, zeuk | gusti-gustia lenago emon daustazu-ta.

Nire biotza nai dozu?... ¡Artu betiko, Jauna.

Neure adimen, oroimen, gorputz eta arima be | zeureak dozuz. Zure maitetasuna naikoa dot, eta ořenbestegaz oso aberatsa naz.

*Esker - mesede bařiak eskatzeko.*

Baña ¿zer negike, Jauna, zure indar eta zure laguntza barik?

¡Ene Jaun maitea! Zure Gorputz-Odol agurgařiak | jan edaritzat artu dodazan ezkero, Andra Maria bitarteko ipiñirik, ařen eskatzen dautzut | emon daistazula argi ta indařa, pekatuagazko bilduřa | ta arerioen ekiñaldi gustiak ausirik, zugaz beti bat-izateko bear dodan laguntasuna.

Jesus, neure gurasoen alde be | eskatzen dautzut, lagundu

egiezu, euren lanak onetsi egizuz. Batez be, Jauna, gero an zeruan guztiok | beti - betiko alkarturik egon gagizan, emen luřean kristiñau on eta zintzoak izateko | laguntza emoiezu.

## Loyola'tar Iñaki deunak sańi esan oi eban otoitza

Kristoren arimea, deundu nagizu.
Kristoren gorputza, salbau nagizu.
Kristoren odola, ase nagizu.
Kristoren sayetzeko ura, garbitu nagizu.
Kristoren nekaldia, indartu nagizu.
O Jesus ona, entzun nagizu.
Zure zauri bařuan | gorde nagizu.

Zugandik alde-egiten | ez niri itxi.
Arerio gaiztoagandik | jabon nagizu.
Eriotz-aldian | dei-egidazu.
Eta zugana joateko | agindu.
Zure deunekaz | betikotasun osoan
Zu goratzeko. Olantxe.

(300 eguneko parkapenak 7 urtekoa egunean bein, Jaunartu ondoren esan ezkero. Parkapen osoa iĺean bein, autortu, Jaunartu, Eleizaren bat ikertu ta bertan Aita Santuaren alde eskatuaz).

## Iñaki deunaren beste otoitza

NIRE aukeramena osoro zeugandu egizu, Jauna: nire oroimen, adimen | eta naimen osoa artu egizuz. Daukadan eta dodan gustia, zeuk emon zeustan | eta zeuri biurtzen dautzut; zeurea do-

zu ta nayen dozunez erabiḹi egizu. Zeure maitasuna ta eskaŕa aŕen, emoidazuz, eta naiko aberatz naz | eta oŕeizaz gañera | besterik ezertxo be ez dot eskatzen.

(300 eguneko parkapenak egunean bein).

## Jesus gurutzean josiari

(Bere irudi auŕean esan bear da).




ONA emen ni, o Jesus on eta gozo-gozoa, zeure auŕean auzpaz eta belauniko nago | eta gogorik bizi ta gartsuenaz | bein eta baŕiro eskatzen dautzut,

aŕen | nire biotz oni siñesmen, itxaropen eta maitasunaren sua, neure obenen garbai zindoa | eta oker oŕek zuzentzeko asmo sendoa | ezaŕi ta aŕazo dayozuzala; maitasun andiz eta garbai zintzoz | zeure bost zauri oŕeik | gogoz ikusita auznartzen dodazan bitartean, David igarleak | zure aoan ipinten ebazan itz oneik | neure begi auŕean dodazala: *Nire esku ta oñak zulatu | ta nire azur gustiak zenbatu dabez.*

(Parkapen osoa Jauna artuta, Aita Santuaren alde otoitz egin ezkero: Garbitokiko arimen alde be eskiñi daiteke).

## Andra Mariari

BIURTU nigana zure begiok, Maria Birjiña goragaŕia, orain zure begien atsegin poza egiñik

nago-ta. Eskatu nire alde | zure Seme maite-maiteari, bere gorputz-Odol osasungaŕia | jan-edariz emon daust-eta; zure irabaziak eskiñi | nire uts eta beaŕizan andien ordez. Eskeŕak emon nire izenean, eta eskatu: ez daitela nire biotz-baŕenetik joan, nire gorputz eta arimea | bere eskar eta mesedez bete-bete egin barik. Olantxe.

## Eriotz-etsipena

(Eriotz-aldirako parkapen osoa gaurtik irabazi zeinke, kristiñaua. Une laŕi aretan, erdi zorabiotuta zagozala, bear bada parkapen oso ori irabasteko etzara gauza izango: irabazi egizu ba gaur bertan: naikoa dozu oŕetarako, autortu, Jaunartu ta uŕengo otoitza biotz-biotzez esatea).

(Pio X 1904'ko Epaĺa'ren 9'an).

## OTOITZA

NEURE Jaun eta Jaungoikoa: Zure gogoko | edozein erako eriotzea, bere lafitasun, bildur, oñaze ta gusti, gogo onez, zure eskuetatik oraindixek artzen dot.

Oafak: 1. Parkapen osoa bein bakafik bizitzan irabazten da eriotz-aldirako.

2. Obeto da ofaitik askotan onelan autortu, Jaunartu ta otoitz ori egitea, ziur irabazteko.



# MEZA DEUNA

## MEZEA ENTZUTEKO EREA

### Meza auŕetik

*Batek.* — Jesukristo gure Jaunaren eriotzea gogoratzen dauskun Meza Deuna entzutera goaz. Jesukristo il zan aldian, antxe gurutzearen oñean aurkitu izan bagiña, ¡bai zintzo egongo giñala! Meza Deunak Jesukristo'ren gurutzeko eriotzea gogoratzen daus-

ku; zintzo-zintzo ta arduraz entzun daigun ba.

*Guztiak.*—O Jesus gure arimea pekatutik azkatu | ta zure maitasunez beteteaŕen, nekaldia igaro | ta gurutzean il nai izan zenduan. Kalbario mendian, gurutzearen ondoan egozala, Ama Birjiñak eta San Juanek ebezan | maitasun eta eŕukia | gure biotzetan jaŕi egizuz.

### Abadeak altarara igotean

*Batek.*—Entzutera goazan Meza au | Jaungoikoari eskeñi dagiogun.

*Guztiak.*—Neure Jaungoiko maitea: Zure ontasun gustiakaitik | eta neure pekatuen parkapena jaristeaŕen | eskintzen dautzut Meza Deun au. Bizirik dagozan eta il diran senide, ongiḻe eta adiskidien alde | eskintzen dau-

tzut. Baita be eskintzen dautzut, zeure Seme Jesus, eŕi onetan




Jauparen asikaldian

obeto ezagutua | eta maitetuagoa izan dedintzat.

## Abadeak Mezea asten dauan aldian

*Batek.*—Aitaren eta Semearen | eta Espiritu Santuaren izenean.

*Guztiak.*—Amen.

*Batek.*—Jaungoikoaren altarara uŕeratuko naz.

*Guztiak.*—Nire gaztetasuna | pozez betetan dauan | Jaungoikoaren altarara.

*Batek.*—Jauna, zure umeak eŕukia eskatzen dautzue.

*Guztiak.*—Ez nagizu, Jauna, bastertu neure pekatuagaitik. Betikotasun guztian | zure ondotik aldenduta biziteko | zoritxar ikaragaŕiak | ez nagiala jo.

*Batek.*—Gure laguntza Jaunaren izenean dago.

*Guztiak.*—Zerua ta luŕa egin ebazan Jaunaren izenean.

*Batek.*—Nik, pekatari onek | autortzen dautset | alguztidun Jaungoikoari,

Andra Maria beti Birjiñari, zoriondun Migel goi-aingeruari, zoriondun Joan Bautisteari, Pedro ta Paulo Apostolu deunai, beste Santu guztiai, eta zuri | ene aita oŕi, pekatu laŕegi egin dodala | gogapen, itz eta egitez.

*Guztiak.*—Neure eŕuz, neure eŕuz, neure eŕu andiz. Augaitik eskatzen dautset | Andra Maria beti Birjiñari, zoriondun Migel goi - aingeruari, zoriondun Joan Bautisteari, Pedro ta Paulo Apostolu deunai, beste Santu gustiai, eta zuri | ene aita oŕi | otoi egin dayozuela nire alde | Jaungoiko gure Jaunari.

*Batek.*—Jaungoiko alguztiduna | gutzaz eŕukitu bedi, obenak parkatu | eta betiko bizitzara eroan gagizala.

*Guztiak.*—Olantxe.

*Batek.*—Jauna, nire eskaria entzun egizu.

*Guztiak.*—Eta nire deadaŕa zugana igon bedi.

## Introitoan

*Batek.*—Jauna, gaurko egunean garbi iraun dagigula.

*Guztiak.*—Or altaran | Santu batzuen azuŕak dagoz, eta Abadeak azuŕoi mun-egiten dautso: Jesus'en izenean bada, eta Santu oŕen irabazien bidez | gaur garbi iraun dagigula | eskatzen dautzugu, Jauna.

*Batek.*—Aintza Aitari ta Semeari | ta Espiritu Santuari.

*Guztiak.*—Len lez orain, beti ta amaibako egunetan. Olantxe.

## Kyrie eleison'etan

*Batek.*—Jauna, eŕuki zakiguz.

*Guztiak.*—Jauna, eŕuki zakiguz.

*Batek.*—Kristo, eŕuki zakiguz.

*Guztiak.*—Kristo, eŕuki zakiguz.

*Batek.*—Jauna, eŕuki zakiguz.

*Guztiak.*—Jauna, eŕuki zakiguz.

**Glorian**

*Batek.* — Aintza Jaungoikoari zeru goietan eta luŕean bakea gogo oneko gizonai.

*Guztiak.*—Jauna, maite zaitugu, bedeinkatzen zaitugu, gurtzen zaitugu.

*Batek.*—Zeure aintza andi ori dala -ta, eskeŕak damotzuguz.

*Guztiak.* — Munduko obenak kentzen dozuzan | Jaungoikoaren Seme bakar | Jesukristo gure Jaun oŕek, entzun gure eskaria.

**Eskarietan**

*Batek.*—Jauna zuekin bego.

*Guztiak.*—Baita zure ariman be.

*Batek.* — Abadeagaz batera eskatu dagigun.

*Guztiak.* — Jauna, Ama Birjiña | eta gaur agurtzen doguzan Santuen bidez, abadeak | beretzat eta guztiontzat eskatzen dauana | emoiguzu. Geure guraso, senide, lagun eta eŕi onetako kristiñau guztiei, zerura joateko beaŕezkoa daben laguntza | emoiezu.

**Epistolan**

*Badakizue Jesukristo zerura igo ondoren, Apostoluak toki batetik bestera ibili zirala, Jesukristo'ren irakatsiak zabaltzen. Eurak ezin zeitekezan toki baten geratu. Eŕi baten kistiñau talde bat egiten ebenean, beste eŕi batera joaten ziran. Orduan kristiñau arek otzitu etzeitezan, Apostoluak idazkiak edo kartak egiten eutsezan. Geienak Paulo deunak idatzi ebazan.*

*Batek.* — Oraintxe diardu abadeak

apostoluak bialtzen ebezan idazki zati bat irakurten. Kristiñauak siñistu bear dauana irakatsi dauskulako, Jaungoikoari eskeŕak damaioguzan.

*Guztiak.*—Bateoaren bidez | zure seme egin nozun | neure Jesus on oŕek, abadeak kristiñau -ikastian | irakasten daustazan egiak siñestera | nire biotza jaŕi egizu.

*Batek.*—Bizitza gustian | beraganako siñesmenean | iraungo dogulakoa | Jesusi agindu dagiogun.

*Guztiak.*—O Jesus: Eleizeak kristiñauei iminten dautsezan | eginbear gustiak betetan | bizi | ta il nai dot.

## Ebanjelloan

*Ebanjelioa Jesus'en bizitzea da. Egiazko ebanjelioak lau dira: Mateo Apostoluak idatzi edo eskribidu ebana, Markos deunak idatzia, Lukas deunak*

*idatzia eta Juan Apostoluak idatzi ebana.*

*Batek.*—Oraintxe diardu abadeak | Jesus'en bizitzearen zati bat irakurten. Ebanjelioari dautsogun itzala agertzeko | bekokian, agoan | eta bulařean gurutze deuna egin dagigun.

*Guztiak.*—Gurutze Santuaren señaleagaitik | geure arerioakandik | zaindu gaizuz | geure Jaun eta Jaungoikoa. Amen. Ebanjelioaren baři-ona | mundu onetara ekaři zenduan Jesus maitea: zure itza siñesten dot. Neu ona izanaz, neure auzokoak be | Zeu obeto ezagutu | ta geiago maitatu zagiezan, zeure esanera jarteko indařa emoidazu.

*Batek.*—Goratua izan bedi Jesus.

*Guztiak.* — Bere Ebanjelio ta gurutzearen bidez | erosi gauzan Jesukristo | goratua izan bedi.

## Kredoan

*Batek.*—Apostoluen agiria esan daigun.

*Guztiak.*—Sinisten dot Jaungoiko Aita alguztiduna, zeru-luŕen egilea | eta bere Seme bakaŕ Jesukristo gure Jauna, Espiritu Santuaren egitez sortu | ta Maria Birjiñagandik jayo zana, Pontzio Pilatoren menpean nekaldua, gurutzean josia, ila ta obiratua izan zana, inpernuetara jatsi | ta irugaŕen egunean ilen artetik biztu zana, zeruetara igon | eta Jaungoiko Aita alguztidunaren eskumaldean | jezaŕita dagoana: andik | biziak eta ilak epaitzera | etoŕiko dana. Sinisten dot Espiritu Santua, Eleiza Santu katolikua: santuen alkartasuna, peka-

tuen parkamena, aragiaren biztuerea, betiko bizitzea. Amen.



Eskintzaldian

## Ofertorioan

*Batek.*=Ofertorioak eskintza esan

nai dau. Jesukristo gure Jaunaren Gorputz | eta Odol biurtuak | laster izango diran | ogi ta ardaoa | eskintzen dauz oraintxe abadeak.

*Guztiak.*—Neure Jaungoikoa: Abadeagaz bat eginda | Opari deun au eskintzen dautzut, eta eskintze au Zuri egitean | lau asmo dodaz: Zeu gurtu; mesede gustiakaitik Zeuri eskeŕak emon; neure obenen parkamena eskatu; ta bear dodazan mesede baŕiak | eskuratzea.

*Batek.*—Opari Deun au | Eleiza katolikoaren aldez eskinten dautzugu.

*Guztiak.*—Bardin eskinten dautzugu | ezagutzen etzabezanak gaizkatu edo salbau daitezan, eta baita garbitokiko arima gaxoen aldez be, zeruan len-bait len artu dagizuzan.

## Eskuak garbitzean

*Batek.*—Jaungoikoagana uŕeratzean | biotz garbia euki bear dogula | guri erakusteaŕen, abadeak eskuak garbitzen dauz.

*Guztiak.*—Zeure altara auŕean | batuta gagozanon arimak | garbitu egizuz: lagun txaŕakin ibiltean dagozan aŕiskuetatik gorde, eta ez gagizuz itxi | pekatuan jausten.

## Orate fratres'ean

*Batek.*—Eŕegutu, anayok, diño abadeak. Umeak: abadearen bidez | eta geurez eskinten diñardugun | Opari Deun au | Jaungoikoaren gogoko izan dedin eskatu dagigun.

*Guztiak.*—Artu egizu, ene Jaungoiko oŕek, Opari au | zeure izenaren aintzaz eta gorespenez, eta geure Eleiza Amaren onerako.

## Prefacio ta Santus'ean

*Batek.*—Eukaristiaren eskutuki ařigařia | laster beteko da. Gure biotzak | Jaungoikoagana jaso dagiguzan.

*Guztiak.*—Gure biotzak Jaungoikoarenak dira. Gure oiuak | aingeruenakin batu daiguzan, zeru-luřen Eřegeaří biotz-biotzetik esateko: *Santua, Santua, Santua da Jaungoiko Alguztiduna. Zeru-luřak zure gloriaz beterik dagoz.* An zeruan zorionekoak bedeinkatu zagiezala.

*Batek.*—Goratua izan bedi | gugana datořen Jesus.

*Guztiak.*—Bai; goratua izan bedi | altarara laster jatxiko dan Jesus.

*Batek.* — Goratua izan bedi | gure Irakasle ta Laguna dan Jesus ona.

*Guztiak.*—Goratua izan bedi Jesus gure Erosle | ta Azkatzalea.

### Konsagraziño aurretik

*Batek.*—O Aita gustiz ona: zure Seme Jesukristo | gure Jaunaren izenean | eskatzen dautzugu, Eleiza Santuaren alde eskiñitako Opari Deun au, arren bedeinkatzeko.

*Guztiak.*—Bai; Eleizea jagon egizu, gorde egizu, bere batasunean iraun dagiala. Ludi gustian zabaldu bedi | eta bakea izan begi.

*Batek.*—Jauna, Aita Santu, gure Gotzain | eta abade guztien alde be | eskatzen dautzugu.

*Guztiak.*—Zerura zuzendu gagiezan | guztiei argia ta indarra emoiezu.

*Batek.*—Erriko kristiñau guztien alde | eskatzen dautzugu, eta batez be | geure senidien alde | eta lenengo Jaunartzea egitera doazan umetxoen alde.

*Guztiak.*—Gomutau zaitez, Jauna, abadearen otoitz ardura-

pean jaŕi diran | eta Meza Deun au eskinten dan | kristiñauetzaz be. Eskaera oneik Ama Birjiña, Apostolu, Martiri eta Santu guztien bitartez egiten dautzuguz.

*Batek.*—Jesukristo'k | il bear eben auŕeko gabean | ogia bere esku santu agurgaŕietan artu eban, eta zerurantz begiak jasoaz | bedeinkatu ta zatitu eban | eta bere ikasliei emon eutsen esanaz: *Artu ta jan egizue, au neure Gorputza da-ta.* Ardaoa eukan ontzia artu eban uŕengo, era berean bedeinkatu eban eta bere ikaslai emon eutsen esanaz: *Artu ta edan; auxe da | zuekaitik | eta beste askogaitik | ixuriko dan nire Odola.* Eta beste itz oneik geitu ebazan. *Nik egin dodan au | nire gomutaz egikezue.* Itz onen bidez, ogia bere Gorputz | eta ardaoa bere Odol, Berak letxe biurtzeko indaŕa | abadiei emon eutsen.

*Guztiak.* — Oraintxe bertan | abadearen itzen bitartez, ogia ta

ardaoa | Jesukristo gure Jaunaren Gorputz eta Odol | biurtuak izan-



Jaungintzia (Konsagrasiñua)

go dirala, biotz-biotzez siñesten dot.

*Oaŕa.* Abadeak Osti Deuna jasoten dauanean, berari begiratuaz, esan ixiĺik bakotxak beragan *Neure Jaun eta Neure Jaungoikoa.* (7 urte ta beŕogeiko parkapenak. Pio X. 1907'ko Oŕiĺa'ko 18'an).

Odol Deuna jasotean esan: *Aita Betikoa: Jesukristo'ren Odol gustiz agurgaŕia eskintzen dautzut neure pekatuen ordañez eta Eleiz-Amoren premiñeta rako.* (100 eguneko parkapenak. Pio VII).

## Konsagraziño ostean

*Batek.*—Ama Birjiñeagandik jaioriko Jesus, Kalbario mendian il | eta andik irugaŕen egunean | bikain ta agurgaŕi bizturiko Jesus ber-bera | ortxe altara ganean dago, Osti-Deunean eskutauta.

*Guztiak.* — ¡Bedeinkatua izan bedi Jesus | altarako Sakramentu gustiz deunean!

*Batek.*—Biotzez otzan eta apala za-

rean Jesus on ořek, gure biotz ezti oneik | zure Biotz ořen antzeko egizuz.

*Guztiak.* — Bai; gure biotz oneik | garbi ta esaneko egin, eta eriotza-aldiraño kristiñau zintzoak izanaz irauteko | mesedea egiguzu.

*Batek.*—Jaungoikoak bere Eleizeari | abadeak emon dagiozantzat | otoitz egin dagigun.

*Guztiak.*—Zeure eleizan siñismena zabaltzeko arazoa | Apostoluen ardurapean itxi zenduan | Jesus on ořek, Zeu ezagutu | ta maiteazoko zabezan abadeak, zeure umien artean aukeratu egizuz.

*Batek.*—Jauna, il diran gure senideetzaz | gogoratu zaitez.

*Guztiak.* —Betiko atsedena emoiezu.

*Batek.*—Il ziran | beste kristiñau zintzo guztietzaz be, Jauna, bardin gomutau zaitez.

*Guztiak.*—Jaungoikoaren eŕukiz | bake gozoan atsedendu daitezala.

*Batek.*—Gutzaz be eŕukitu zaitez, Jauna.

*Guztiak.*—Bai, pekatari gaxo eŕukaŕi batzuk baño besterik ez gara | ta eŕuki zakiguz. Zeure ontasun neuŕibagean | uste osoa ipinten dogu. Gero | betikotasun gustian | santuekin batean | maitatu zaiguzan | zeure santuen alkartasunean artu gagizuz.

**Aita gurean**

*Batek.*—Jesukristok berberak irakatsi euskun otoitza | esan dagigun.

*Guztiak.*—Aita gurea, zeruetan zagozana, santifikadu bedi zure izena, betorkigu zure eŕeñua, egin bedi zure borondatea |

zeruan lez luŕean be. Emoiguzu gaur geure egunoroko ogia, parkatu eiguzuz geure zoŕak, geuk gure zordunai parkatzen dautseguzan lez, eta ez eiguzu itxi tentaziñoan jausten, baña gatxetik jagon gaizuz. Amen.

### Agnus Dei'an

*Batek.*—Munduko obenak kentzen dozuzan | Jaungoiko-Bildots ori.

*Guztiak.*—Eŕuki zakiguz.

*Batek.* | Munduko obenak kentzen dozuzan | Jaungoiko-Bildots ori.

*Guztiak.*—Eŕuki zakiguz.

*Batek.*—Munduko obenak kentzen dozuzan | Jaungoiko-Bildots oŕek.

*Guztiak.*—Bakea emoiguzu.

### Jaunartzean

*Batek.*—Jauna ez naż duin | Zu nire biotzean sartzeko.

*Guztiak. — (Eskuaz bulara joaz)* Baña itz bakar bat esaizu



Jaunartzian

ta nire arimea osatukoda. *(Iru bider esan).*

*(Abadeak Jaunartzen dauan bitartean, Jaunartzera auŕeratuko ez diran umeak gogozko Jaunartzea egingo dabe).*

*Batek.*—O Jesus, entzuizu | Jaunartze Deunean artu nai zindukiezan | umien otoitza.

*Guztiak.*—O Jesus | gure Erosle maitegaŕia: Zugaz batzeko daukodan gogo au | aintzat artu. Gaur goizean poz-pozik artuko zinduket | biotz-biotzez maite zaut eta; ganera | zugaz alkartuta egoteak | nire oben eta uts-egiteak gitxitu | eta nire griña txaŕak—aulduko leukez. Zatoz zeure graziaż | eta indartu nagizu. Zuganako nire maitasuna geitu egizu, garbi-garbia | eta Zeuk nai zeunken lezkoa | izaten lagundu.

## Jaunartze-ostean

*Batek.*—Mezako Opari Deuna egin da; Opari Deun oŕen irabaziak—geuganatzeko mesedea — Jesusi eskatu daiogun.

*Guztiak.*—O Jesus: Bizitz zintzo baten bitartez | Zure seme gareanok, zeruko zorionera eroan gagizuz. Maite doguzan gusti-gustiei be | mesede auxe egiezu. Zeure neuŕibako eŕukian | pekatari gaxoen arimetzaz | gogoratu zaite. Zu eurekaitik il ziñan, eurekaitik jasten zara egunero | gure altara ganera.

## Azkenengo otoitzetan

*Batek.*—Emendik uŕin dabilzan | gure lagunen alde | Jaungoikoari otoitz bat egin dagiogun.

*Guztiak.*—Jauna, ez egiezu

zeure estalpea ukatu; eurakandik aŕiskuak aldendu egizuz; pekatuan ez daitezala jausi.

*Batek.*—Kristiñau ikasbidera ez datozan umeakaitik be eskatu dagigun.

*Guztiak.*—Jauna, Zeu ezagutu, maitatu | ta kristiñau onak izateko argia, indaŕa | ta iraupena gustieri emoiezu.

**Abadeak onespena emoteko aldian**

*Batek.*—Meza amaitu da. Abadearen onespena artzeko | burua makurtu dagigun.

*Guztiak.*—Neure Jaungoikoa, zeure ordezkoaren eskuz | bedeinkatu gagizuz: Aitaren eta Semearen | eta Espiritu Santuaren izenean.

## Azkenengo Ebangelioan

*Batek.* — Mezea entzuteko grazia egin dauskulako, Jaungoikoari eskerŕak emon dagioguzan.

*Guztiak.*—Esker beroak damotzudaz Jauna, Meza entzuten itxi daustazulako. Neure buru-arinkeriz | egin izango dodozan utsak | parkatu egidazuz. Eskiñi dautzudan Meza Deunak | neure pekatuak garbitu dagizala, eta ziltzaldietan gogor egiteko | indaŕa emon begist. Zu naigabetu barik | igaro gura dodan egun onetan | Zutzaz gogoratuko naz.

Maria Birjiña, neure Ama ona, eta neure Aingeru jagola deuna, nire asmo onak | zeuen eskuetan izten dodaz. Lagun egidazue, gorde nagizue, zaindu nagizue.

## Mezea amaitu ondoren

*(XIII-gaŕen Leon Aita Santuak agindu-riko eskariak)*

(300 eguneko parkapenak)

Abadeak eŕiagaz batera iru «Agur Maria» esaten dauz; ta gero:

### Salve Regina

MATER misericordiæ, Vita dulcédo et spes nostra, salve.

Ad te clamámus éxsules fílii Evæ.

Ad te suspirámus, geméntes et flentes in

### Agur Eŕegiña

AGUR Eŕegiña, Ama eŕukioŕa, geure bizitza, gozotasun eta itxaropena, agur. Zuri deyez gagoz Ebaren ume erbestetuok: antsiz, eta negaŕez gatorkizuz

hac lacrymárum valle.

Eja ergo, advocáta nostra, illos tuos misericórdes óculos ad nos convérte.

Et Jesum benedictum fructum ventris tui nobis post hoc exsílium ostende.

O clemens.

O pia.

O dulcis Virgo Maria.

V. Ora pro nobis, Sancta Dei Génitrix.

negar-eŕi onetan. Ea bada, geure bitarteko Andrea, zeure begi eŕukitsu oŕeik | gugana biurtu egizuz, eta erbeste onen ondoren | erakuskuzu Jesus, zeure sabeleko seme onetsi ori. O biotz bigun! O eŕukior! O Maria Birjiña gozoan!

i) Gure aldez otoi egizu | Jaungoikoaren Ama done oŕek.

R. Ut digni efficiámur promissiónibus Christi.

e) Jesukristoren agintzariak | jadetsi daikeguzan.

*Oremus*

Deus refugium nostrum et virtus, populum ad te clamantem propitius réspice, et intercedente gloriosa et immaculata Virgine Dei Genitrice Maria cum beato Joseph ejus Sponso, ac beatis Apóstolis

*Eskaria*

Gure igesleku ta indaŕa zarean Jaungoikoa, deyez dagokizun eŕi au | eŕukiz begiratu egizu; ta Birjiña orbange ta aintzatsua, Maria Jaungoikoaren Ama, Jose bere ezkontide zoriontsua, Pedro ta Paulo zu-

tuis Petro et Paulo, et ómnibus Sanctis, quas pro conversione peccatorum, pro libertate et exaltatione sanctæ matris Ecclésiæ, preces effundimus, miséricors et benígnus exaudi. Per eumdem Christum Dóminum nostrum.

Amen.

*Invocatio*

SANCTE Michaël Archán-

re Apostoluak | eta beste Santu gustiak | bitarteko doguzala, eŕukior eta onbera | entzun egixuz, pekatarien donekunde | eta Eleiz Ama Deunaren azkatasun | eta garaitzarako | zuzentzen dautzuguzan eskariok. Jesukristo gure Jaun berberaren izenean. Olantxe.

*Eskaria*

MIKEL goiaingeru done

gele, defende nos in prælio; contra nequitiam et insidias diáboli esto præsidium.= *Imperet* illi *Deus;* súpplices deprecamur, tuque, Princeps militiæ cœlestis Sátanam aliosque spíritus malignos, qui ad perditionem animarun pervagantur in mundo, divina virtute in infernum detrúde.

Amén.

ořek, gudaketan jagon gagizuz, eta diabruaren gaiztakeri ta maltzurkerien aurka lagun zakiguz. *Jaungoikoak menpetu dagiala,* auzpaz eskatzen dogu, eta zuk zeruko gudarien buruzagi ořek, gure arimak galdu nairik luřean zear dabiltzan Satan eta bere lagun gaiztoak, goiko indařez beko bařendira

| | |
|---|---|
| | jaurti egizuz. Olantxe. |
| Cor Jesu sacratíssimum, miserére nobis. | Jesus'en Biotz gustiz deun ori, eŕuki zakiguz. |

(7 urte ta 7 beŕogeiko parkapenak Meza ondoren iru bidar esan ezkero: garbitokiko arimentzat izan daitekez).

**Ondorengo otoitza**

Eskeŕak damotzuguz | zeure mesede guztiokaitik | zuri Jaungoiko alorodun, gizaldien gizaldietan bizi zarean | eta agintzen dozun oŕi. Olantxe.

**Aingeru-Otoitza**

Aingeru batek Mariari
Diñotso graziz betea,

Jaungoikoaren Semeari
Emon dautsazu sortzea.

*Guztiak.*

*Goiz, aŕats eta eguerditan*
*Ama, goresten zaitugu;*
*Aingeruaren itzak eurak*
*Guk ber-esaten ditugu.*

Nigan Jaungoikoaren naya
bete ta egin daitela,
Bere Ama izan nadintzat,
Baña Birjiña naizela.

*Goiz, aŕats...*

Jainkoaren Seme maitea
Geu lez gizon egin yaku:
¡Auxe bai zorion andia!
¡Bere Ama egin gaitu!

*Goiz, aŕats...*



# ERAZPEN EDO DEBOZIÑOAK

## Sakramentu gustiz deunari

### Jesusi ikertaldia egiten doan ume baten Otoitza

O Jesus, ia astirik geyenean | bakar-bakaŕik zagoz eleizan... Ara, ni zuri ikertalditxo bat egite-

ra nator. Gurtzen zaitut. Une batzuetan | zure ondoan egon nai dot.

Nire jolasak, nire eginbeaŕak, jolasean gelditu diran nire lagunak | poz-pozik itxi dodaz, zutzaz gogoratzen nazala | eta maite zaitudala, ona etoŕita, zuri esateaŕen.

Bai, Jesus, zu emen zagoz, ortxe zagoz Sagrarioan itxita; nik ori badakit | eta siñesten dot. ¡Zenbat bizi diran zutzaz aiztuta! ¡Zenbatek izten zaituen ortxe | Sagrarioan bakar bakaŕik! Oŕaitik be, eurakaitik | eta mundu guztiagaitik Nekaldia igaro | ta gurutzean il ziñan-da, eurakaitik zagoz ortxe Sagrarioan.

O Jesus | neure Erosle maite ori! Ona emen ni zeure auŕean, zutzaz aiztuta bizi diran | eta ba-

kar-bakaŕik izten zaituen oŕen ordez, Zeu poztutera nator. Ni zeure laguntxo leiala naz.

Jesus, Santuak orain | zeruan zure arpegi edeŕa ikusiaz | egiten dautzuen agurtzea | neuk be emen siñismenez ikusiaz | egiten dautzut. Luŕeko zerua zeugaz egotea da.

**Gogozko Jaunartzea**

*Egizko* Jaunartzea *gogozko* Jaunartzearen aldean askoz obea da. Oŕaitik be, egizko Jaunartze epelak baño gogozko Jaunartze beroak arimeari on andiagoa egin leikio.

Jauna Ostian artu ezin dozunean, gogoz beintzat artu egizu. Oŕetarako esan:

NEURE Jesus maite laztana! Ziur eta sendoro siñisten dot | altarako Sakramentu gurgaŕi one-

tan, ogiaren antz-irudipean | estalduta bai, baña egiaz eta benetan zagozala; agurtzen zaitut, ene Jaungoiko ori, maite ta laztan zaitut; baña orain | neure bulařean ezin artu zaitudan ezkero, zatoz gogoz beintzat | nire biotzera; bertan bazengoz lez | laztantzen zaitut, Jauna, ta zugaz bat egin eta izan nai dot beti.

¡Ez al naz aldenduko iñoz geyago zugandik!

(Zagoz apur baten ixilik eta eskatu Jaunari bear dozuzan mesedeak).

## JAUNAREN ONESPENA EGITEKO EREA

Gure Jauna agirian ipinten danean:

Pange lingua gloriosi
Corporis misterium,

Sanguinisque pretiosi,
Quem in mundi pretium
Fructus ventris generosi
Rex effudit gentium.

Edo alan nai bada, *O Salutaris Ostia,* liburu onen azkenean dagoan lez. Uŕengo ondo litzake *Tu es Petrus* edo *Oremus pro Pontifice...* ondoren doazan lez.

**Pro Summo Pontifice**

℣. Orémus pro Pontifice nóstro N...

℟. Dóminus consérvet eum, et vivificet éum et beátum fáciat éum in térra, et non trádat éum in ánimam inimicórum éjus.

℣. Fiat mánus tua super virum déxteræ tuæ.

℟. Et supra filium hominis quem confirmásti tibi.

Jauna gorde bear danean:

Tantum ergo Sacraméntum
Venerémur cérnui:
Et antíquum documéntum
Novo cedat ritui;
Præstet fides suppleméntum
Sensuum deféctui,

Genitóri Genitóque
Laus et jubilátio,
Salus, honor, virtus quoque
Sit et benedictio:
Procedenti ab utróque
Compar sit laudátio. Amen.

℣. Panem de cælo præstitisti eis. (T. P. Alleluia.)

℟. Omne delectamentum in se habentem. (T. P. Alleluia.)

**Oremus**

Deus qui nobis sub Sacramen-

to mirabili passionis tuæ memoriam reliquisti: tribue, quæsumus, ita nos Corporis et Sanguinis tui sacra mysteria venerari, ut redemptionis tuæ fructum in nobis jugiter sentiamus. Qui vivis et regnas in sæcula sæculorum. R. Amen.

Abadeak gure Jaunaz bendeziñoa emon ondoren, Jaun agiria altara kutxan sartu baño len, bere auŕean belauniko esan bear dira:

## Birauen ordezko gorapenak

Bedeinkatua izan bedi Jaungoikoa.

Bedeinkatua izan bedi bere izen deuna.

Bedeinkatua izan bedi Jesukristo, egiazko Jaungoiko | ta egiazko gizona.

Bedeinkatua izan bedi | Jesus' en izena.

Bedeinkatua izan bedi | bere Biotz Jaungoikozkoa.

Bedeinkatua izan bedi | Altarako Sakramentu gustiz Deuna.

Bedeinkatua izan bedi | Jaungoikoaren Ama goragaṙi, Maria gustiz deun eta orbangea.

Bedeinkatua izan bedi | Maria Birjiña ta Amaren Izena.

Bedeinkatua izan bedi | bere ezkontide gustiz garbi Jose donea.

Bedeinkatua izan bedi | Jaungoikoa bere aingeru ta Santuetan.

(Nai danean, otoitz au esanaz aldiro urte beteko parkapena irabazi daiteke. Pio VII'g. 1801, Garagaṙil̄a 23'an).

Ondoren esan daiteke:

Laudáte Dóminum omnes gentes * laudáte eum ómnes pópuli.

Quoniam confirmáta est super nos misericórdia éjus * et véritas Dómini manet in ætérnum.

Gloria... Sicut erat...



# GURUTZ-BIDEA

*Gurutze santuaren...*
*Jesukristo neure Jaun...*

## Eskintza

NEURE Jesus gozo-laztana, nire maitasunez, gurutze astuna bizkaŕean zeroala, ainbeste bide neketsuetan ibil̄i zareana! Kalbarioko zure oñaze - miñak gaur emen gogoraturik, lenen neure

eskar ona erakutsi gura dautzut eta gero, Eleiza Amak eskiñitako parkapen ugariak irabazi be bai, garbitokiko arima eŕukaŕientzat, eta batez be, zure gogokoen diran eta zoŕik geyen dautzuenentzat. Lagundu nagizu, Jauna, asmo bi oneik albait ondoen bete dagidazan.

Toki batetik bestera zoazala esan:

| | |
|---|---|
| Sancta Mater istud agas. | Jesusek gurutzean. |
| Crucifixi fige plagas. | Arturiko zauriak. |
| Cordi meo valide. | Ama josi nirean. |

# Lenengo egotaldia



**Gure Jesus maitea iltea erabagi dabe.**

*Adoramus te Christe et benedicimus tibi.*

*Quia per sanctam crucem tuam redemisti mundum.*

*Gurtzen zaitugu, Jesus, eta onesten zaitugu, zeure gurutze santuaz gizadia beŕerosi dozulako.*

NEURE Jesus maitea, judatar lotsagabe ta Pilatos'en auŕean ixil-ixiĺik zagoz, agintari zital au zure kaltez bidegabeko epairik gogoŕena emotera doanean, zu gizonik zuzenena izanik.

Aŕen eskatzen dautzut, Jauna, emoidazula neure aŕokeria menperatzeko indaŕa, erbeste onetako naigabeak pozik eroanaz, jadetsi dagidan nozbait zeruko zorion edeŕa. Olantxe.

*Aita gurea, Agur Maria, Aintza.*

Esan gero:

| | |
|---|---|
| *Miserere nostri Domine.* | *Guzaz eŕuki zaitez, Jauna.* |
| *Miserere nostri.* | *Guzaz eŕuki.* |
| *Et fidelium animæ per mi-* | *Ildakoen arimak, Jaungoikoaren eŕukiz,* |

| | |
|---|---|
| *sericordiam Dei requiescant in pace.* | *atseden bakean begoz.* |
| *Amen.* | *Olantxe.* |

Toki batetik bestera aldatzean, esan gorago lez: *Sancta Mater...* edo «*Gure Jesus maitearen Nekaldi-eriotza ta bere Amaren atsekabeak bedeinkatuak eta goretsiak izan beitez. Olantxe.*

## Bigaŕen egotaldia




**Jesus maiteak gurutzea artzen dau.**

*Adoramus...*

ZERU luŕaren Egiĺe ta Jauna: judatar biuŕien menpean jaŕi zara, ainbat neke gogor aen eskuetatik artu ta gero gurutze astuna sorbalda gañean eroateko...

Emoidazu Jauna: nik be gurutzea laztantzea, au da: atsekabe, min eta ezbear guztiak biotz onez artu ta eroatea, gero zeru edeŕean ikusi zagidazan. Olaŕtxe.

*(Aita gurea...* ta ondoren ipiñi diran beste otoitzak, lenengo egotaldian lez, beste gustietan be esaten dira.

## Irugaŕen egotaldia



**Gure Jesus maitearen lenengo Jaustea.**

*Adoramus...*

¡NEURE Jesus laztana! Luŕean etzana ikusten zaitut gurutzepean, guztiz auldu ta nekatuta. Gurutze astunak eratzi ete -zaitu ba luŕera, zeru-luŕak indar-

tzen dozuzan Jaun Altsu ori?...

Ez; nire oben (pekatu) astun ta bidegabe andiak dira: orain ezagutzen dot bakotxaren gaiztakeria.

Emoidazu, Jauna, guztiak biotzez goŕotatzea. Olantxe.

## Laugaŕen egotaldia




**Jesus malteak kalbarioko - bidean bere Ama ikusten dau.**

*Adoramus...*

ANDRA Maria, Amarik eŕukaŕiena; zure oñazearen andia, Jesus zeure Seme laztana ikusirik txistuz zikindua, zauriz josia, guztiak iŕi ta baŕe egiten dautsela!

Parkatu, aŕen, ene Ama: nire bidegabeak ipiñi dabe zure Semea oŕelan; baña orain autortzen ditut eta auŕerantzean beste bat izango naz.

Emoidazu, Ama laztan oŕek, biotzeko garbai ta damu egiazkoa. Olantxe.

## Boskaŕen egotaldia



**Jesus onari gurutzea eruateko laguna damotse**

*Adoramus...*

¡NEURE Jesus maite-maitea! Laguna artu dozu gurutzea eruateko, ez laguntza beaŕean zagozalako, gu oso aldakoŕak, guztiz aul eta pekatariak izanik, geu-

re indar utsez ezer ezin geinkela erakusteaŕen baño.

Emoiguzu, Jaun maite oŕek, guztioi ain beaŕezkoa dogun zure laguntza ori. Olantxe.

## Seigaŕen egotaldia




**Beronikak Jesus maiteari arpegia garbitzen dautso**

*Adoramus...*

ZERUKO izar argiak eta eguzkia bera baño edeŕagoa zarean neure Jesus eta Jauna: ¿nok zure arpegi eder ori txistuz ezaindu dau? Neuk pekatari onek, neure

gaiztakeri eta obenez; baña damuzko zapi edeŕaz orain zure izerdi-loyak kendu nai dodaz.

Ezaŕi, Jauna, nire biotzean zure izerdi edeŕa, ta ez naz auŕerantzean Zugandik aldenduko. Olantxe.

## Zazpigaŕen egotaldia




**Gure Jesus maitea bigaŕenez yausten da.**

*Adoramus...*

JESUS'EK bigaŕen aldiz luŕa joten dau, ene kristiñaua: ¿zegaitik ete-da? Adierazo nai dauskulako, asmu sendo baŕiak saŕi artuaŕen, baŕiro jausiko gariala,

bere laguntza eskatu ezpa-dagigu. Zoritxaŕez oŕelan izan da: amaika bidar geure biotza emon dautsogu eta beste ainbestetan baŕiro ukatu dogu, Pedro'k lez: bere laguntza barik, ezer ezin geinke.

Emoiguzu Jauna, gure asmu onak indartuko dituan zeure laguntza ori. Olantxe.

## Zortzigafen egotaldia




**Gure Jesus maiteak Jerusalengo alabai itz-egiten dautse.**

*Adoramus...*

NEGARREZ ikusten ditu Jesus'ek Jerusalengo alabak, gurutzilbtzatzera daroelako, ta, efukiz beterik, euren buruez negar egiteko diñotse, euren buruez eta euren

semeetzaz. Geure bafuan daukagu pekatariok zertzaz negar-egin, ondo damututa negar egin ezik, betiko galdumen eta zoritxafa ekafiko dauskuez-ta.

Biztu, afen, Jauna, gure biotzetan zure maitasun-gafa ta pekatuagazko damu ta gofoto bizia. Olantxe.

# Bederatzigaren egotaldia



**Jesus maitea irugarenez yausten da lurera.**

*Adoramus...*

IKUSKIZUN arrigarria! Zeru - lurraen Egile ta Jabe dan Jaun andia irugarrenez lurrera jausten da. Bein eta birritan jaustea ez ete-zan ba naikua? Ez, bearrezkoa zan barriro

eta irugafenez be jaustea, guztiok ikasi gengian «gurutzea azkenerano eroan bear dogula», au da: beti izango doguzala neke-lanak, oñaze-miñak, ezbear eta naibageak, baña biotz onez artu ta eroan bear doguzala.

Jaun maite oŕek, gurutzea beti gogo onez eroateko adore ta kemena emoiguzuz. Olantxe.

## Amargaren egotaldia



**Jesus maiteari soñekoak kentzen dautsoez.**

*Adoramus...*

BEGIRATU ta ikusi egizu, kristiñaua, Jesus zure Jaungoikoa, aingeru lirañak baño askozaz garbiago dan Jauna, bilosik bere arerioen auŕean... Axe bai

lotsaria! Zenbateraňoko naibage samiña artu ete-eban ain lotsagaŕiro bere burua ikusirik, ainbeste lagunen artean?

Oŕa or zelan ordaindu gura izan dituzan gure nasaikeri ta loikeriak, gure aragikeri ta lizunkeri guztiak:

¡Emoiguzu, aŕen Jauna, biotz-garbitasun andia! Olantxe.

## Amaikagaŕen egotaldia




**Jesus maitea gurutzean josten dabe.**

*Adoramus...*

NEURE Jesus eŕukior eta maitea: gurutzean ipinten dozuz zeure esku ta oñak eta ikaragaŕizko oñaze-miñez gurutzean josten zaitue boŕeru biotz-gogor oŕeik... Baña zer diñot boŕeruak? Ni naz,

Jesus maitea, zeure bořerurik andiena, gurutze ořetan amaika bidar josi zaitut-eta, pekatu egin dodan bakotxean.

Eŕuki zaite nitzaz gaur, ene Jaun ori, ta parkatu, ařen, nire bidegabe guztiak. Olantxe.

---

## Amabigaŕen egotaldia



**Gure Jesus maitea Gurutzean ilten da.**

*Adoramus...*

IKARATU zaitez, kristiñau ori, Jesus gurutzean eskegita, zintzilik begiratzen dozula, ikusgaŕirik andiena zure begiak orain ikusten dabe-ta.

Gizon zuzena, lapur-gaizkiñen artean; bildotsik otzanena, otso amuŕatuen erdian; Jaungoikoaren Semea, ta Aita lez Jaungoikoa, bere arerioen eskuetan... gurutzean josita, odola dariola, oŕa or gure pekatuen ordaña.

Agurtzen zaitugu Kristo gure Jauna, ta bedeinkatzen zaitugu, zure gurutze Santuaz beŕerosi gaituzulako. Olantxe.

## Amairugaŕen egotaldia




**Jesus maitearen gorpua bere Amaren altzoan ipinten dabe.**

*Adoramus....*

AMA samindu ta naigabetsua! nok neurtu zure oñazeak, Jesus zeure Seme laztana zeure altzo ta besoetan ilda ikusten dozula? Ama eŕukitsu maitea, zure

naigabeak besteko biotz-garbai ta damua euki nai neukez, neure pekatuak gorotatzeko, zure Seme laztan ori nire obenak erail dabe-ta.

Jadetsi egidazu eskar edo grazi berarizko au: biotzez eskatzen dautzut. Olantxe.

## Amalaugaŕen egotaldia



**Gure Jesus maitearen gorpua eortzi edo obiratzen dabe.**

*Adoramus...*

BEGIRATU egizu azkenez, kristiñau oŕek, Jesusen gorputz ila eortzi daben obia; obi baŕia da, aitz bizian zulatua ta aŕi zabal ta lodi batek izten dau bere

sařerea; zure biotzak be obi bařì izan bear dau, Jesus izan ezik, beste iñor gordeko ez dauana; sařerako ařiak irakasten dausku, ardura andiz zaindu bear dogula Jesusen etsai edo arerioak sartu ez dakiguzan, berak emondako eskar doyak ostutera.

Andra Maria, neure Ama, emoidazu, ařen, zure Seme ta nire Beřerosle laztanagazko maitasun bero-sutsua. Olantxe.

## Jesukistoren bost zauriak

*(Xabieŕtar Prantzisko Deunak egin oi eban otoitza).*

NEURE Jaun eta Jaungoiko Jesukristo: guganako maitasunak gurutzean edegi eutzuzan bost zauriakaitik eta gurutze bidean

izan zebazan beste ezin neurtu ala gorputz - uŕatze minberagaitik eskatzen dautzugu: zure odol eder aldintsuz gaizkaturiko guztiok, zure eŕukia, zure laguntza ta betiko zoriona jadetsi daigula.

(*5 Aita gure, Agur Maria* ta *Gloria* ta azkenean beste bat Aita Santuaren alde).

Gero:

*Adoramus te, Christe, et benedicimus tibi.*

*Quia per sanctam crucem tuam, redemisti mundum.*

**Oremus**

Respice quæsumus Domine, super hanc familiam tuam, pro qua Dominus noster Jesus Christus non dubitavit manibus tradi no-

centium et crucis subire tormentum. Qui tecum vivit et regnat, in unitate Spiritus Sancti Deus, per omnia sæcula sæculorum. Amen.

## Jesus Gurutziltzatuaren bost zauriai agur̃ak

(Gorago ipiñi dan otoitzaren ordez beste au esan daiteke, Gurutz bidea amaitzeko).

*Ezker̃eko oñeko zauriari:*

Biotzez gurtzen zaitut, neure Jesusen zauri eder ori, ta berorigaitik eskatzen dautzut, Jauna, neure itz eta egite gaiztoz egindako pekatuak parkatu daistazuzala.

*Aita gurea, Agur Maria ta Aintza.*

*Eskoiko oñeko zauriari:*

Biotzez gurtzen zaitut, neure Jesusen zauri eder ori, ta berorigaitik eskatzen dautzut, Jauna, neure itz eta egite gaiztoz egindako pekatuak parkatu daistazuzala.

*Aita gurea, Agur Maria ta Aintza.*

*Ezkeŕeko eskuko zauriari:*

Biotzez gurtzen zaitut, neure Jesusen zauri eder ori, ta berorigaitik daskatzut, Jauna, neure begi ta beste zentzunez egindako pekatuak parkatzeko.

*Aita gurea, Agur Maria ta Aintza.*

*Eskoiko eskuko zauriari:*

Biotzez gurtzen zaitut, neure Jesusen zauri eder ori, ta berori-

gaitik eskatzen dautzut Jaun oři, nire gomutamen, adimen eta naimenaz egindako pekatuak, ařen, parkatu daistazuzala.

*Aita gurea, Agur Maria ta Aintza.*

*Bulařeko zauriari:*

Biotzez gurtu ta jauresten zaitut, neure Jesusen zauri eder ori, ta berorigaitik eskatzen dautzut, ene Jauna: zure biotza aztamakil gogořak eta zure Amarena ezpata zořotzak josi eban lez, nire arima be zure maitasunak josi dagiala.

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*
Aita Santuaren alde.



# JESUSEN BIOTZAGANAKO ERASPENA

## Amabi eskintzak

Asko ta andiak dira Jesusen Biotz eŕukitsuak bere maitaleai egindako eskintzak. Ara emen batzuk.

1.—Euren bizibidean bear dabezan laguntasun gustiak, nik emongo dautsedaz.

2.—Euren sendi edo famelietan bakia zabalduko dot.

3.—Atsekabe gustietan nik poztuko dodaz.

4.—Bizitzan, eta batez be eriotz-aldian, euren abaro ta estalpea ni izango naz.

5.—Euren egikizun gustietan bedeinkatu ta lagunduko dodaz.

6.—Pekatariak nire Biotzean eŕukizko itxaso baztergabea aurkituko dabe.

7.—Kristiñau epelak berotuko dodaz.

8.—Beroak nire maitasunean irazekiko ditut.

9.—Abadeai biotzik gogoŕenak biguntzeko doya emongo dautset.

10.—Nire biotz-irudia agirian dauken etxeak bedeinkatuko dodaz.

11.—Nire Biotzaganako maitasuna zabaldu dagien gustien izenak neure Biotzean iraŕita eukiko dodaz.

12.—Il̃en lenengo bederatzi bariku jaŕaikoetan Jaunartu dagien gustiei, neuŕi gañezko nire Biotzaren eŕukiak eskintzen dautse, nire asaŕean ez dirala ilgo, ezta eleizakoak artu barik be.

## Iŕen lenengo bederatzi barikuak

Ona emen Jaunaren espanetatik Alakoke'tar Margarita Maria Deunak entzun zituan itz edeŕak:

NEURE BIOTZAREN NEUŔIZ GOITIKO EŔUKIAK ETA NIRE MAITASUN ALORODUNAK, IŔEN LENENGO BEDERATZI BARIKU JAŔAYETAN JAUNARTUKO DABEN GUS TIEI AGINTZEN DAUTSE: «NIRE ASAŔEAN EZ DIRALA ILGO, EZTA ELEIZAKOAK ARTU BARIK BEZ, ETA AZKEN UNE LAŔI ARTAN NIRE BIOTZA IGES-LEKU ZIUŔA IZANGO DABELA».

*Agintzen dana.*

Jaungoikoaren aiskitasunean ilteko eskar edo grazi berezi andia eskintzen

dausku Jesukristoren Biotz eŕukioŕak; beraz, bederatzi lenengo bariku jaŕaikoetan Jaunartu dagien guztiak, naiz dala lenago eleizakoak artuko dabezalako, naiz oŕeik ezin arturik, biotz-damu egiazkoa egingo dabelako, Jaungoikoaren aiskitasunean ilgo dira ta zerua irabaziko dabe.

*Eskatzen yakuna.*

Eskar edo grazi berezi-andi ori irabazteko, naiko da *ilen lenengo bederatzi bariku jaŕaikoetan Jaunartzea;* beraz, Jaungoikoaren grazian egon ezkero, ez da beaŕezkoa ez autortzea, ez beste otoitz edo egikizun onik egitea be. Oŕaitik be, eraspen onetatik irabazi andiagoak aterateko, guztiz ondo ta egoki izango da egun oŕeitan otoitz eta eleizkizunak egitea, Jesusen Biotzaren opaz eta aintzaz.

(*Parkapen osoa* irabazten da lenengo bariku bakoitzean, autortu, Jaunartu, Aita Santuaren aldez eskatu eta Jesusen Biotzari otoitz bat edo beste zuzenduaz).

## Jaunartu ondoren lenengo bariku bakoitzean esan daiteken otoitza

JESUS samur eztitsua; zure Biotz oŕen maitasun eta eŕuki andi-andiak zeure aizkitasunean ilgo dirala agindu dautse, lenengo bederatzi bariku jaŕaikoetan Jaunartu dagien guztiei; aŕen, Jaun ori, eŕuki zakidaz, eta zeure agintza ori gomutaurik, neure oben guztiak goŕotatzeko laguntza ta zeure maitasunean ilteko zoriona emoidazuz.

**¡Jesusen Biotz eŕukioŕa, zeruko ate zabala, nitzaz eŕuki!**

**¡Jesusen Biotz eŕukioŕa, aberaztasunez betea, nitzaz eŕuki!**

**¡Jesusen Biotz eŕukioŕa, zugan ilten diranen itxadona, nitzaz eŕuki!**


Geure Ama Begoña'koa



# ANDRA MARIAGANAKO ERASPENA

Ama bako umea ume zurtza da; ama dauan umea bar̃iz, zorioneko da. Estutasun eta lar̃itasun aldian umeak amari deitzen dautso; ez da ba umearentzat amaren magala baño babes oberik.

Jakizu, bada, ume, badozula zeruan lur̃eko amak baño askozaz maiteago zaituan Ama on bat, Jesusen Ama ber-bera da zure Ama be. Izan zaite bere seme edo alaba ona, zure Ama on ori asko maite egizu, ta bere magalpetik ez bein be alde egin Zeruko Amaganako erazpenik onenetaikoa auxe da:

# AGURTZA DEUNA

(Eŕosarioa)

*Otoitz guztiz edeŕa:* ez da ba gizonak asmaua, zerutik jatxia baño. Ama Mariak berak Domingo Deunari irakatsia da-ta.

*Otoitz guztiz edeŕa:* eskaririk edeŕenak berekin daukazalako: *Aita gurea* Jesukristok irakatsia, *Agur Maria* aingeruak zerutik ekaŕia, *Santa Maria* ta *Gloria* Eleiz-Amak jaŕiak.

*Gure auŕetikoak, euskaldun zaŕak, eŕosarioaren oso zaleak ziran.*

Oneraspen (debozino) eder onek sortu ditu gure eŕian entzute andiko deun (santu) ospetsuak: Loyola'tar Iñazio, Xabier eta Martin deunak, Lizardi, Tomas eta Beŕiotxoa zoriondunak.

Berak gorde ditu gure Eŕian siñismen eta oitura garbiak, eta geure egunetan be ainbat siñisbako edo siñisgalduko eŕidi artean, gure Eŕian siñismenak disdiratzen badau, eŕosarioari zor dautsogu.

Gure asaba zaŕak lez esan daigun egunero, guztiok batera gure etxetan, agurtza edo eŕosario deuna.

## Agurtza esateko erea

